


JARDUERA

Gure negozioa aurrera eramateko garaian, zenbait jarduera burutzea beharrezkoa da. Jarduera hauen bitartez, gure balorezko proposamena garatzea lortuko dugu, hau da, gure zakarrontzi inteligentek ekoiztu eta saltzea jendeak birzikla dezan. Horrez gain, bezeroengana iristerako orduan, zenbait bulego ireki ditugu, beraiekin errazago komunikatzeko, honela, aurrez-aurreko bilerekin udaletxeko ordezkarietara harremana sendotzea lortuko dugu. Harreman honen bitartez, udaletxeek errazago alkatutako dizkigute gure produktuak eta gure helburua lortuko dugu, hau da: diru-sarrera handiagoak edukitzea. Gainera, konfidantza hortaz baliatuz, epe luzeragoko alokairuak izatea lortuko dugu. Eta aldi berean, alokatzeaz gain bezeroak gure zakarrontzi inteligentek erostea erraztuko du.

Gure funtsezko jarduera zakarrontziak ekoiztea da. Enpresek emandako materialak elkartuz, zakarrontziak eraikitzen ditugu, eta zakarrontzi inteligentek hauek udaletxei saltzen dizkiegu. Zakarrontziak ekoiztu ahal izateko, ezinbestekoa zaizkigu harremanetan jarri garen enpresen lana. Horrez gain, zakarrontzi inteligentetan erreziklatuz, herriko merkatuetan deskonduak edukitzeko aukera sortu dugu. Hori kudeatzeko, web bat sortu dugu, non, gero-eta puntu gehiago lortuz gero, geroz eta deskontu handiagoak edukiko dituzte herritarrek, herriko ekonomia sustatu eta kaleak garbi mantentzen diren bitartean.

Gure produkzio jardueran hainbat jarduera bereizi ditugu; produktuaren diseinua, kantitate jakinak, kalitatea eta produktuaren entrega.

Produktuaren diseinuari dagokionez, hau da sortu dugun bozetoa produktuaren diseinua nolakoa den ondo ulertu ahal izateko:



Produktuaren kantitatearen inguruan, hau da, gure enpresak gure produktuaren zenbat ekoiztuko ditugun, eskaeraren arabera izango da. Baina, aldez aurretik, negozio arrakastasu bat izango dela uste dugunez, nahiko zakarrontzi izango ditugu ekoiztuak stockean, stock haustura gertatu ez dadin, eta beti zakarrontziak saltzeko gai izateko.

Beraz, aurreikuspen bat egingo dugu zenbat udaletxeei eta zenbat zakarrontzi saltzeko aukera izango dugun, beti ere baten bat gehiago eginez, lehenik aipatutakoa ez gertatzeko. Zakarrontzi inteligenteen kalitateari dagokionez, gure zakarrontziek ahalik eta kalitaterik onena izango dute, luzaroan iraun ahal izan dezaten. Hori lortuko dugu, materialak horretan diharduten beste enpresa batzuetatik datozeelako. Hau da, beren materialak eta ekoizpena arreta eta ezagutza handiz zaintzen dituzten enprekin lan egiten dugu. Gainera, guk jada badaukagu ezagutza handiko talde prestatu bat.

Produktuaren entregari erreferentzia eginez, guk aliantza egin dugun enpresa oso baliagarria izango zaigu. Izan ere, "Transvolando" enpresari esker garraioa modu azkar eta seguru batean izango dugu. Hortaz, gure bezeroak izango diren udaletxeek ez dituzte arazorik izango.

Funtsezko elkarteei dagokionez, hainbat aliantza sortu ditugu enpresa jakin batzuekin bakoitzak gure ekoizpen prozesuaren zati batean laguntzeko; hala nola, *Binology LLC*, *Laumas*, *EOS* eta *Transvolando*. Hala ere, gure enpresan ezinbestekoa da enpresa horiekiko harremana ondo kudeatzea eta tentuz ibiltzea, gure enpresari kalterik egin ez diezaioten.

Irati Zarranz, Anje Irastorza, Xabier Urigoitia, Julen Garmendia eta Irati Salgado